



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.-----**

ZIURTATZEN DUT:

Bi mila eta hemezortziko uztailaren hemeretziaren, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hemeretziaren, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo Andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Iñaki Larrañaga Etxabe jauna, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

Ez dira bertaratu: Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean: Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

CERTIFICO:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día diecinueve de julio dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del diecinueve de julio de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Don Iñaki Larrañaga Etxabe, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.

No asisten; Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Doña Mireia Isasmendi Aizpiri y Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

LEHENENGOA.- 2018KO EKAINAREN 28AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zortzian egin zen bilerari dagokion akta.

BIGARRENA.- UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA EREMUAREN PLAN PARTZIALAREN 3. ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.-

Idazkari jaunak Habitat Batzordearen honako irizpen hau irakurri du:

“2018ko maiatzaren 21ean, Tokiko Gobernu Batzarrak lehendabizikoz onartu zuen “UA10 LERUNTXIKI-MORTERIKA eremuaren plan partzialaren 3. Aldaketa” izeneko agiria, Hitzarmen Batzordeak sustatu eta Girder Ingenieros SLPk idatzi duena.

Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren argitaratu ziren iragarkien bitartez abian jarri zen jendaurreko erakustaldian alegazio bat aurkeztu da, hain zuzen ere, UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA Hitzarmen Batzordeak berak sinatu duena.

Alegazioa egiteko aurkeztu den idatzian, laburbilduta, honako hau adierazten da:

Aldea dago 2. partzelako hirigintza fitxako datuen eta dokumentazio grafikoaren artean, okupazioaren gehienezko azalerari eta gehienezko lerrokatuerei dagokienez. Alegazioarekin batera, hasiera batean onartu zen plan partzialaren planoak ordezkatzeko planoak aurkeztu dira; izan ere, bertan,

PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 28 DE JUNIO DE 2018.-

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veintiocho de junio de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

SEGUNDO.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA 3ª MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL DEL ÁMBITO U.A.10.A LERUNTXIKI-MORTERIKA.-

Por parte del Sr. Secretario, se procede a dar lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

“Con fecha 21 de mayo de 2018, la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente el documento de “3ª Modificación del plan parcial del ámbito UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA”, promovido por Junta De Concertación y redactado por Girder Ingenieros SLP.

En el periodo de información pública abierto mediante sendos anuncios publicados en el Diario Vasco y el Boletín Oficial de Gipuzkoa., respectivamente, ha sido presentada una alegación, suscrita por la propia Junta de Concertación de la UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA.

En el escrito de alegación presentado, se señala, sucintamente, lo siguiente:

Existe una discrepancia entre los datos de la ficha urbanística de la parcela 2 y la documentación gráfica, en cuanto a superficie de ocupación máxima y alineaciones máximas. Junto a la alegación se adjuntan planos para la sustitución de los planos del plan parcial inicialmente aprobado, donde se eliminan las



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

desagertu egin dira 1. eta 2. partzelen gehienezko lerrokadurak.

alineaciones máximas de las parcelas 1 y 2.

2. partzela eraikuntza isolatuko partzela da; eta bertan, besteak beste honako hau baimentzen da:

La parcela 2 trata de una parcela de edificación aislada en la que, según ficha urbanística, se permite entre otros:

-sestra gaineko eraikigarritasun urbanistikoa: 2.697,00 m²(t).
-okupazioa: 1.950,00 m²
-lerrokadurak: II.6 planoan ezarritakoa beteko da.

-edificabilidad urbanística sobre rasante: 2.697,70m²(t).
-ocupación: 1.950,00m²
-alineaciones: se ajustará a lo establecido en el plano II.6

II.6 planoan "Partzelazioa, Definizio geometrikoa, lerrokadurak eta sestrak" zehazten dira, eta 2. partzelaren gehienezko lerrokaduratik 1.368,00 m²-ko gehienezko okupazioa lortzen da. Horren ondorioz, esan daiteke aldea dagoela idatzizko dokumentazioaren eta dokumentazio grafikoaren artean.

En el plano II.6 se definen "Parcelación. Definición geométrica: alineaciones y rasantes." De la alineación máxima de la parcela 2, se obtiene una ocupación máxima de 1.368,00m², por lo que se deduce que existe discrepancia entre la documentación escrita y gráfica.

Ildo horretatik, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena azterturik, honako hau izan behar da kontuan:

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales, y teniendo en cuenta lo siguiente:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legaren 7.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, maila bereko zehaztapenen arteko gainjartzeak, zehaztasunik ezak eta kontraesanak gertatzen baldin badira, horiek ebazteko, lehenengo eta behin, zehaztapen arauemaileei lehentasun handiagoa emango zaie zehaztapen deskribatzaileei, informatzaileei edo justifikatzaileei baino, eta bigarrenik, zehaztapen idatziei lehentasun handiagoa emango zaie zehaztapen grafikoei baino. Hortaz hirigintzako fitxan idatzita dagoen gehienezko okupazioa gailenduko da.

- Conforme a lo dispuesto en el art 7.2.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, en caso de solapamientos, imprecisiones y contradicciones entre determinaciones de igual rango se resolverán otorgando prevalencia en primer lugar, a las determinaciones prescriptivas sobre las descriptivas, informativas o justificativas, y, en segundo lugar, a las escritas sobre las gráficas. Por tanto, prevalece la ocupación máxima escrita en la ficha urbanística.



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

- Hori dela eta, **alegazioa partzialki onartzen da**, eta planoetan islatutako gehienezko lerrokadura zuzentzen da, 2. partzelako hirigintzako fitxan deskribatutakoaren arabera.
- Ez dira alegazioan proposatutako planoak onartzen; izan ere, bertan proposatzen da gehienezko lerrokadura sortuko den partzelaren plataforma guztira zabaltzea.
- Lerrokadura zuzendu egingo da, eta horretarako, gehienezko okupazioaren azalera hartu arte luzatuko da.
- Por tanto, **se admite parcialmente la alegación**, corrigiéndose la alineación máxima reflejada en planos, conforme a lo descrito en la ficha urbanística de la parcela 2.
- No se admiten los planos propuestos en la alegación ya que en ellos se plantea extender la alineación máxima a la totalidad de la plataforma de la parcela resultante.
- Se corregirá la alineación máxima prolongándola hasta alcanzar la superficie de ocupación máxima.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 96 artikuluetan, eta bidenabar, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22, c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Habitat Batzordeak, EH BILDUREN ordezkariaren aurkako botuarekin, aldeko irizpena egin ostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurari helarazi dio, ondoko **AKORDIOAK** har ditzan:

Lehenengoa.- “UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA eremuaren plan partzialaren 3. Aldaketa” izeneko agiria behin betiko onartzea, baita hasierako onarpenean adierazi ziren zehaztapenak eta ondoren zehaztuko dena ere:

- Planoetan islatutako gehienezko lerrokadura zuzendu egingo da, 2. partzelaren hirigintzako fitxan deskribatutakoaren arabera. Hau da, gehienezko lerrokadura hori
- Se corregirá la alineación máxima reflejada en planos, conforme a lo descrito en la ficha urbanística de la parcela 2. Es decir, se prolongará dicha alineación máxima hasta

De conformidad con lo establecido en los artículos 95 y 96 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22, c) de la Ley 7/1985, de 2 Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Comisión de Hábitat, con el voto en contra del representante de EH BILDU, dictamina favorablemente y eleva a consideración del Pleno municipal los siguientes **ACUERDOS**:

Primero.- Aprobar definitivamente el documento de “3ª Modificación del plan parcial del ámbito UA10A LERUNTXIKI-MORTERIKA”, con las puntualizaciones señaladas en el acuerdo de aprobación inicial, y además la siguiente:



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

gehienezko okupazio azalera hartu arte zabalduko da.

alcanzar la superficie de ocupación máxima.

Hori dela eta, 3. aldaketa honen sustatzaileak zuzendutako II.1 eta II.6 (2tik 1) planoak aurkeztu beharko ditu. Horretarako, HILABETEKO epea izango du, akordio hau jakinarazten denetik aurrera.

A tal efecto la promotora de la presente 3ª modificación deberá presentar los planos II.1 y II.6 (1de 2) corregidos en el plazo de UN MES, a contar de la notificación del presente acuerdo.

Bigarrena.- Plan partzialaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza antolamenduaren administrazio-erregistrora bidaltzea; batetik, behar bezala izapidetutako paperezko formatuan, eta bestetik, informatika formatuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Segundo.- Remitir al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa un ejemplar del Plan Parcial en formato papel debidamente diligenciado y otro en formato informático, a los efectos de lo establecido en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Hirugarrena.- Espedientearen behin betiko onarpenari buruzko akordioa GAO n eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarietako batean argitaratzea. GAO n egingo den argitalpenean onartuko den hirigintzako araudiaren testu osoa argitaratuko da, hori bai, agiria Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistrora bidali eta gero.

Tercero.- Proceder a la publicación del acuerdo de aprobación definitiva del expediente en el BOG y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporando, en la publicación del BOG el texto íntegro de la normativa urbanística que se aprueba, todo ello, una vez remitido el documento al Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Laugarrena.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran.”

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, en la forma legalmente establecida.”

Bozketa egin ondoren, irizpena onartu eta akordio bilakatu da, honako emaitza honekin:

Sometido a votación, el dictamen es aprobada, elevándolo a la categoría de acuerdo, con el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE)
- Aurkako botoak: 4 (EH Bildu)

- Votos a favor: 10 (PNV, PSE-EE)
- Votos en contra: 4 (EH Bildu)

HIRUGARRENA.- URRUZUNOKO (4B URRUZUNO 2 ETA 3) PLAN PARTZIALAREN 3. ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.- Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho

TERCERO.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA 3ª MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL DE URRUZUNO (ÁMBITO 4B URRUZUNO 2 Y 3).- Es aprobado por unanimidad elevándolo a



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

batez onartu da eta Erabaki izaera hartu du:

“2018ko maiatzaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak lehendabizikoz onartu zuen “Urruzunoko (4B Urruzuno 2 eta 3 eremua) plan partzialaren 3. Aldaketa” izeneko agiria, GURE TXOKO SLk sustatu eta Abalos Arquitectos enpresak idatzi duena.

Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren argitaratu ziren iragarkien bitartez abian jarri zen jendaurreko erakustaldian alegazio bat aurkeztu da, hain zuzen ere, GURE TXOKO SLk sinatu duena.

Alegazioaren edukia, laburbilduta, honakoa da:

- Teilatupean, 1,80 m-tik gorako altuera libre duen guneari aprobetxamendua ematea proposatzen da. Gune hori bizitegiarako erabiliko da. Horrexegatik, indarrean dagoen HAPOren “Eraikigarritasun fisikoa konputatzeko irizpideei” buruzko 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, azalera hori eraikigarritasun gisa hartu beharko litzateke. Hori dela eta, sortutako partzela bakoitzari emandako eraikigarritasunak berriro ere banatzeko proposamena egiten da. Hala, 50m² (t) emango zaizkie, hurrenez hurren, sortu diren 3.1. eta 3.2. partzelei, eta 100 m² (t) kenduko zaizkio sortu den 4.2. partzelari, eta hori guztiori, proposatutako bolumen eraikigarria aldatu gabe.

la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión Hábitat:

“Con fecha 21 de mayo de 2018, la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente el documento de “3ª Modificación del plan parcial de Urruzuno (ámbito 4B Urruzuno 2 Y 3)”, promovido por GURE TXOKO SL y redactado por Abalos Arquitectos.

En el periodo de información pública abierto mediante sendos anuncios publicados en el Diario Vasco y el Boletín Oficial de Gipuzkoa., respectivamente, ha sido presentada una alegación, suscrita por GURE TXOKO, SL.

El contenido sucinto de la alegación es el siguiente:

- Se refiere a la posibilidad de dar aprovechamiento al espacio de altura libre mayor a 1,80m en el bajo cubierta. Dicho espacio se destinaria a vivienda, por lo que conforme al art. 20 “Criterios de Cómputo de la Edificabilidad física” del vigente PGOU de Elgoibar, dicha superficie computaría como edificabilidad. Por todo ello, se plantea redistribuir las edificabilidades asignadas a cada parcela resultante asignando 50m² (t) a cada una de las parcelas resultantes 3.1. y 3.2. y reducir en 100m² (t) la parcela resultante 4.2., todo ello sin alterar el volumen edificatorio propuesto.



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Ildo horretatik, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena azterturik, honako hau izan behar da kontuan:

- Plan partzial honen aldaketa eraikuntza tipologia aldatu izanaren ondorioz gertatu denez, eta eraikuntza hondoa gutxitu eta luzera handitu egin denez, **onartu egiten da alegazioa**, eta 4.2. partzelaren eraikigarritasuna murrizteko proposamena egiten da; eta horretarako, Albitzuri industrialdera daraman errepideko bihurgunearekin alderatuta, partzela horren gehienezko lerrokadura atzeratu egingo da.
- Dokumentazio grafikoan partzelen zeharkako sekzioak zehazten dira. Luzetarako sekzioak falta badira ere, teilatupeko gunea aprobetxatzeko proposamena egiten denez, honako hau ohartarazten da: **3.1. eta 3.2. partzeletako teilatuak hiru edo lau isurkikoak izan beharko direla.**

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales, y teniendo en cuenta lo siguiente:

- Teniendo en cuenta que la modificación del presente plan parcial está motivada por el cambio de tipología edificatoria, reduciendo el fondo edificatorio y aumentando la longitud, **se admite la alegación** y se propone reducir la edificabilidad de la parcela 4.2. a costa de retirar la alineación máxima de dicha parcela respecto de la curva de la carretera de acceso al polígono Albitzuri.
- En la documentación gráfica se detallan secciones transversales de las diferentes parcelas. A falta de secciones longitudinales, y teniendo en cuenta que se propone el aprovechamiento del espacio de bajo cubierta, se advierte que, **las cubiertas de las parcelas 3.1. y 3.2. deberán ser a tres o cuatro aguas.**

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 96 artikuluetan, eta bidenabar, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22, c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Habitat Batzordeak aldeko irizpena egin ostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurari helarazi dio, ondoko **AKORDIOAK** har ditzan:

De conformidad con lo establecido en los artículos 95 y 96 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22, c) de la Ley 7/1985, de 2 Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Comisión de Hábitat dictamina favorablemente y eleva a consideración del Pleno municipal los siguientes **ACUERDOS**:



Lehenengoa.- “Urruzunoko (4B Urruzuno 2 eta 3 eremua) plan partzialaren 3. Aldaketa” izeneko agiria behin betiko onartzea honako aldaketa hauekin:

1.- Teilatupean 1,80 m-tik gorako altuera libreko gunea aprobetxatzeko aukera emango da, eta horretarako, sortu diren partzelei emandako eraikigarritasunak aldatu egingo dira, hurrenez hurren, sortu diren 3.1. eta 3.2. partzelei 50m² (t) emanda, eta sortu den 4.2. partzelari 100 m² (t) kenduta, eta hori guztiori, proposatu den bolumen eraikigarria aldatu gabe.

2.- 4.2. partzelaren eraikigarritasuna murriztu egingo da; eta horretarako, Albitzuri industrialdera daraman errepideko bihurgunearekin alderatuta, partzela horren gehienezko lerrokadura atzeratu egingo da.

3.- eta 3.2. partzeletako teilatuak hiru edo lau isurkikoak izan beharko dira.

Plan partzialaren sustatzaileak aurreko aldaketak jasoko dituen testu bateratua aurkeztu beharko du, eta horretarako, gehienez, HILABETEKO epea izango du.

Ez dira iragarkiak argitaratuko, testu bateratua aurkezten ez den bitartean.

Horrez gain antolamendu planoak formatu editablean aurkeztuko ditu, UTM koordinadak jasoz.

Bigarrena.- Plan partzialaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza antolamenduaren administrazio-erregistrora bidaltzea; batetik, behar bezala izapidetutako paperezko formatuan, eta bestetik, informatika formatuan, Lurzoruari eta Hirigintzari

Primero.- Aprobare definitivamente el documento de “3ª Modificación del plan parcial de Urruzuno (ámbito 4B Urruzuno 2 Y 3)”, con las siguientes modificaciones:

1.- Se posibilitará dar aprovechamiento al espacio de altura libre mayor a 1,80m en el bajo cubierta, redistribuyendo las edificabilidades asignadas a cada parcela resultante asignando 50m² (t) a cada una de las parcelas resultantes 3.1. y 3.2. y reduciendo en 100m² (t) la parcela resultante 4.2., todo ello sin alterar el volumen edificatorio propuesto.

2.- Se reducirá la edificabilidad de la parcela 4.2. a costa de retirar la alineación máxima de dicha parcela respecto de la curva de la carretera de acceso al polígono Albitzuri.

3.- Las cubiertas de las parcelas 3.1. y 3.2. deberán ser a tres o cuatro aguas.

El promotor del plan parcial deberá presentar un texto refundido que incorpore las anteriores modificaciones en el plazo máximo de UN MES.

No se publicarán los anuncios en tanto en cuando no sea presentado el texto refundido.

Además deberá presentar los planos de ordenación en formato editable, incluyendo coordenadas UTM.

Segundo.- Remitir al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa un ejemplar del plan parcial en formato papel debidamente diligenciado y otro en formato informático, a los efectos de lo establecido en el artículo



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Hirugarrena.- Espedientearen behin betiko onarpenari buruzko akordioa GAOOn eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarietako batean argitaratzea. GAOOn egingo den argitalpenean onartuko den hirigintzako araudiaren testu osoa argitaratuko da, hori bai, agiria Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistrora bidali eta gero.

Tercero.- Proceder a la publicación del acuerdo de aprobación definitiva del expediente en el BOG y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporando, en la publicación del BOG el texto íntegro de la normativa urbanística que se aprueba, todo ello, una vez remitido el documento al Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Laugarrena.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran.”

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, en la forma legalmente establecida.”

Hemezortziak eta berrogeita bost minutu direnean, Nerea Alustiza Alonso andrea, Talde Sozialistaren zinegotzia, bilerara bertaratu da.

Siendo las dieciocho horas y cuarenta y cinco minutos, se incorpora a la sesión la concejal del Grupo Socialista D^a Nerea Alustiza Alonso.

LAUGARRENA.- ELGOIBARKO UDALAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANAREN (2018-2022) ONARPENA.- Euskara eta Kultura Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu da eta Erabaki izaera hartu du

CUARTO.- APROBACIÓN DEL VI. PLAN (2018-2022) PARA NORMALIZAR EL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.- Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Euskera y Cultura:

“AURREKARIAK

“ANTECEDENTES

1.- Elgoibarko Udalak orain arte indarrean izan du Euskararen Erabileraren 2013-2017 Plana, arestian aipatutako aldi horretan, udalean euskararen erabilera bultzatzeko proposamenak, helburuak eta normalizazio ekintzak jasotzen dituena.

1.- El Ayuntamiento de Elgoibar hasta la fecha ha tenido vigente el Plan de Normalización del Uso del Euskera 2013-2017, en el cual se contemplan las propuestas, objetivos y acciones de normalización para potenciar el uso del euskera, en el período anteriormente citado.

2.- Era berean, kontuan izan behar da Erabilera Plan horren indarraldia dagoeneko iraungita dagoela, eta Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako

2.- Asimismo, debe considerarse que ya ha concluido la vigencia de dicho Plan de Uso del Euskera. Por ello, siguiendo el mandato de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco,



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Sailburuordetzaren aginduz, Udaleko Euskararen Erabilera Plan berria onartu behar duela.

3.- Horiek horrela, Euskara Sailak, Euskara-Kultura Batzordearen oniritziarekin Euskararen Erabilera Plana berri du, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali du honek aldeko txostena egin dezan.

4.-Elgoibarko Udalak Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren aldeko txostena jaso du.

ELGOIBARKO UDALAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANEAN ondoko atalak jasotzen dira:

Sarrera

1. V. Erabilera Planaren ebaluazioa eta VI. plana egiteko diagnosa.

2. Eragin eremua eta eragin epea.

3. Derrigorrez bete beharreko indizea.

4. VI. Erabilera Planaren helburu orokorrak.

5. VI. plangintzaldirako proposaturiko lan ildoak.

6. Normalizazio ekintzak.

7. Azpiegitura.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, 2018ko ekainaren 19an egin zen Euskara eta Kultura Batzordeak ondoko akordioak har ditzala proposatzen dio Udalbatzarraren Osokoari:

AKORDIOAK:

el Ayuntamiento de Elgoibar debe proceder a la aprobación de su nuevo Plan de Uso.

3.- Así las cosas, el departamento de Euskera con el visto bueno de la Comisión de Euskera-Cultura ha procedido a la renovación del Plan de Uso del Euskera y lo ha remitido a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco para que ésta dé su conformidad.

4.- El Ayuntamiento de Elgoibar ha recibido el informe favorable de la Viceconsejería de Política Lingüística.

Que el VI. PLAN PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR contiene los siguientes apartados:

Introducción

1. Evaluación del V. periodo del Plan de Normalización del Uso del Euskera y diagnóstico para la elaboración del VI. periodo de planificación.

2. Ámbito de aplicación y periodo de vigencia.

3. Índice de obligado cumplimiento.

4. Objetivos generales del VI periodo de planificación.

5. Directrices para el VI. periodo de planificación.

6. Actuaciones de normalización.

7. Infraestructura.

A la vista de lo que antecede, la Comisión de Euskera y Cultura celebrada el 19 de junio de 2018, propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes

ACUERDOS:



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

LEHENENGOA.- ELGOIBARKO UDALAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANA onartzea.

BIGARRENA.- Honako akordio hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea legez ezarrita dagoen eran.

BOSGARRENA.- UDAL KIROL PATRONATUKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO, 1/2018 ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEREN BERRI EMATEA.-
Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Lehendakariak eman duen honako Ebazpen honen berri izan du:

“Erakunde Autonomo honen 2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduketak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa Aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta espediente horren izapidetza aplikagarria zaizkion legeei egokitzen zaiela, eta bidezkotzat jotzen dela organo eskudunak 59.680,00 euroko zenbatekoaz onestea, bai gastuen eta baita diru-sarreraren aurrekontuetan.

Ikusita Zuzendaritza Batzordeak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Foru Arauak 20. artikularen 3 eta 4. apartatuetan eta Foru Dekretuak 34.

PRIMERO.- Aprobare el VI. PLAN PARA LA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.

SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo en la forma legalmente establecida a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

QUINTO.- DAR CUENTA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1/2018 DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2018 DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES.- El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Presidencia:

“Visto el expediente que se instruye para modificar créditos mediante Créditos Adicionales dentro del Presupuesto de este Organismo Autónomo, correspondiente al ejercicio de 2018.

Examinados los informes, certificaciones y demás actuaciones practicadas en dicho documento, teniendo en cuenta que la expresada modificación ha de contribuir a la agilización del desarrollo del Presupuesto y que la instrucción de dicho expediente está ajustada a la normativa legal vigente que le es de aplicación, y que se estima procedente su aprobación por el órgano competente por su importe de 59.680,00 euros tanto en el presupuesto de ingresos como en el de gastos.

Visto que la JUNTA Rectora ha dictaminado favorablemente y ha formulado propuesta de aprobación.

En el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 29, apartados 3 y 4 y el art. 34, apartados 3 y 4,



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

artikuluaren 3 eta 4. apartatuetan ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, hau

respectivamente de la Norma Foral y Decreto Foral antes citados, vengo a

EBATZI DUT:**RESOLVER:**

Lehenik.- Patronatuko aurrekontuari dagokionean horri buruz egindako proposamenean jartzen diren Kreditu Gehigarrien bidez Kredituak aldatzeko espedientea onartu, zehazpena honako hau delarik:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante créditos adicionales que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Patronato y conforme al siguiente resumen:

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**PROPUESTA DE REALIZACION DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACION DE CREDITOS**

Aurrekontu-partida Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak Creditos		
		Egungoak Actuales	Aldaketak Modificaciones	Behin- betikoak Definitivos
1.0102.682.342.00.01	Olaizaga kiroldegiko paretak+sabaia berritu Renovación de paredes y techos del Polideportivo Olaizaga	0,00	59.680,00	59.680,00
GUZTIRA / TOTAL		0,00	59.680,00	59.680,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**PROPUESTA DE FINANCIACION DE CREDITOS ADICIONALES**

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua Concepto del recurso	Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos	Baliabidearen partziala Parcial del recurso
2.0000.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina Remanente de tesorería		59.680,00.-€
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			
TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS			59.680,00.-€



OSOKO BILKURA
2018/07/19
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bigarren.- Ekintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran ekintza honen berri ematea eragotzi gabe.”

